

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ERABAKIA, 2008ko apirilaren 29koa erakunde arteko Hitzarmena, 2006ko maiatzaren 17koa, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruzkoa, aldatzen duena urte anitzeko finantza-esparruaren egokitzapenari dagokionez (2008/371/EE).

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «DECISIÓN DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 29 de abril de 2008 por la que se modifica el Acuerdo interinstitucional, de 17 de mayo de 2006, sobre disciplina presupuestaria y buena gestión financiera, en relación con la adaptación del marco financiero plurianual» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala*, L 128/8, 2008/5/16koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN ERABAKIA,

2008ko apirilaren 29koa

erakunde arteko Hitzarmena, 2006ko maiatzaren 17koa, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruzkoa, aldatzen duena urte anitzeko finantza-esparruaren egokitzapenari dagokionez

(2008/371/EE)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen arteko erakunde arteko Hitzarmena, 2006ko maiatzaren 17koa, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruzkoa ⁽¹⁾, bereziki haren 48. puntua, aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute, eta honakoa kontuan hartuz:

(1) 1b eta 2 errubriken hainbat programa eragile onartzean izandako atzerapenen ondorioz, 2007an ezin izan zen agindu eta 2008an ezin izan zen luzatu 2 034 milioi euroko zenbatekoa egitura-funtsei, kohesio funtsari, landa-garapenari eta Arrantzarako Europako Funtzari esleituriko kontusaileko prezio arruntetara. Erakunde arteko Hitzarmeneko 48. artikuluan xedatutakoari jarraiki, zenbateko hori hurrengo urteetan transferitu behar da, konpromiso-kredituei dagozkien gastuen gehienezko mugak handituz.

(2) Ondorioz, aurrekontu-diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruzko erakunde arteko Hitzarmenean ⁽²⁾ I. eranskina aldatzea komeni da.

ERABAKI DUTE:

Artikulu bakarra

Aurrekontu diziplinari eta finantza-kudeaketa egokiari buruzko erakunde arteko Hitzarmeneko I. eranskinaren ordean, Erabaki honetako eranskina ezarriko da. Bruselan eginga, 2008ko apirilaren 29an.

Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING presidentea

Kontseiluaren izenean, D.RUPEL presidentea

(1) C 139 EO, 2006.6.14koa, 1. or. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/29/EE Erabakiak (L 6 EO, 2008.1.10ekoa, 7. or) aldatutako Hitzarmena.

(2) Ildo horretan, prezio arrunten zifrak 2004ko prezioetara bihurtzen dira.

ANEXO

Marco financiero 2007-2013

(millones EUR — a precios constantes 2004)

Créditos de compromiso	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	Total 2007-2013
1. Crecimiento sostenible	50 865	53 262	54 071	54 860	55 400	56 866	58 256	383 580
1a. Competitividad para el crecimiento y el empleo	8 404	9 595	10 209	11 000	11 306	12 122	12 914	75 550
1b. Cohesión para el crecimiento y el empleo	42 461	43 667	43 862	43 860	44 094	44 744	45 342	308 030
2. Conservación y gestión de los recursos naturales incluidos gastos de mercado y pagos directos	51 962 43 120	54 685 42 697	54 017 42 279	53 379 41 864	52 528 41 453	51 901 41 047	51 284 40 645	369 756 293 105
3. Ciudadanía, libertad, seguridad y justicia	1 199	1 258	1 380	1 503	1 645	1 797	1 988	10 770
3a. Libertad, seguridad y justicia	600	690	790	910	1 050	1 200	1 390	6 630
3b. Ciudadanía	599	568	590	593	595	597	598	4 140
4. La Unión Europea como socio mundial	6 199	6 469	6 739	7 009	7 339	7 679	8 029	49 463
5. Administración ⁽¹⁾	6 633	6 818	6 973	7 111	7 255	7 400	7 610	49 800
6. Compensaciones	419	191	190					800
Total créditos de compromiso	117 277	122 683	123 370	123 862	124 167	125 643	127 167	864 169
Porcentaje de la RNB	1,08 %	1,09 %	1,07 %	1,05 %	1,03 %	1,02 %	1,01 %	1,048 %
Total créditos de pago	115 142	119 805	112 182	118 549	116 178	119 659	119 161	820 676
Porcentaje de la RNB	1,06 %	1,06 %	0,97 %	1,00 %	0,97 %	0,97 %	0,95 %	1,00 %
Margen disponible	0,18 %	0,18 %	0,27 %	0,24 %	0,27 %	0,27 %	0,29 %	0,24 %
Límite máximo de los recursos propios en porcentaje de la RNB	1,24 %	1,24 %	1,24 %	1,24 %	1,24 %	1,24 %	1,24 %	1,24 %

(¹) Los gastos de pensiones incluidos en el límite máximo de esta rúbrica se han calculado sin contar las contribuciones del personal al régimen correspondiente, con un tope de 500 millones EUR a precios de 2004 para el período 2007-2013.